



MUGIKORTASUNA ERASMUS+ LATINOAMERIKA (AL) BESTE NORAKOAK (BN)

EHU/ARTE EDERREN FAKULTATEKO
IKASLEENTZAKO GIDA

KONTUAN IZAN

- **GRADU ALDAKETA** ESKATU BADUZU, URTE BEREAN EZIN IZANGO ZARA MUGIKORTASUN DEIALDIETARA AURKEZTU.

BAINA LASAI, HURRENGO URTEAN AURKEZTU ZAITEZKE.
- **SICUE PROGRAMAN** PARTE HARTU NAHI BADUZU, EZIN ZARA URTE BEREAN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMA BATETAN AURKEZTU: ZIGORTUA IZANGO ZARA NAZIOARTEKO PLAZA ESLEITZEN BAZAIZU ETA UKO EGITEN BADIOZU SICUE PROGRAMAN PARTE HARTZEKO: EZER GABE GELDITUKO ZARA!
- KOMUNIKAZIO ORO **@IKASLE** HELBIDEAREN BITARTEZ EGINGO DA. BERAZ, POSTONTZIA GARBI ETA ERABILGARRI IZATEA KOMENI DA.

HAUTATUA IZATEKO IRIZPIDEAK

1. IKASKETA-ESPEDIENTEA

2. HIZKUNTZAK

GEHIENEZ 0,5 PUNTU LORTZEN DIRA (IRIZPIDEA: HIZKUNTZA-MAILA)

ARRAZOI BAZTERTZAILEA IZAN DAITEKE NORAKO FAKULTATEAREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEI ERANTZUTEN EZ BADA.

3. BUDDY PROGRAMAN PARTE HARTU IZANA (ARGIBIDEA: [HEMEN](#))

0,5 PUNTU LORTZEN DIRA. AURKEZTU BEHARREKOA:

PARTAIDETZA-ZIURTAGIRIA + ESLEITU ZAIZUN IKASLE ATZERRITARRAK EGINDAKO EBALUAZIOA

4. LEHENAGO MUGIKORTASUNIK EGIN EZ IZANA

ALDEZ AURRETIK MUGIKORTASUNA IZAN BADUZU: EZ ZAIZU BAZTERTZEN, BAINA LEHENTASUNA GALTZEN DUZU.

**ATZERRIKO
UNIBERTSI-
TATERA
JOAN
AURRETIK**

URRATSEZ URRATS



UNIBERTSITATE-AUKERAKETA



- LEHEN URRATSA: **GAUR** (ARGIBIDEA: [HEMEN](#))
 - EGITEN ARI ZAREN **GRADUAREN** ARABERA, NORAKO EZBERDINAK.
 - **ERASMUS+**: EZ DU NAHASMENIK SORTZEN
 - LATINOAMERIKA (**LA**) ETA BESTE NORAKOAK (**BN**):
 - BERARIAZKO LA/BN: EZ DU NAHASMENIK SORTZEN
 - LA/BN KUPO OROKORRA: EHU OSOARI ESKAINTZEN ZAIZKIEN UNIBERTSITATEAK DIRA. EZ BAKARRIK GURE FAKULTATEARI. HORIETAKO BATEN BAT GAUR SISTEMAKO ZERRENDAN AGERTZEN BAZAIZU, UNIBERTSITATE HORREK ZURE GRADUA ESKAINTZEN DUELA ESAN NAHI DU. DENA DEN, ZIURTATU!
- BIGARREN URRATSA:
ATZERRIKO UNIBERTSITATEEN WEB-ORRIETAN ARAKATU
 - BILATU "INCOMING STUDENTS", "EXCHANGE" EDO "INTERNATIONAL OFFICE" IZENENKO ATALAK ATZERRIKO UNIBERTSITATEAREN WEBGUNEAN. BERTAN HIZKUNTZA ESKAKIZUN ZEHAITZEN INGURUKO INFORMAZIOA AURKITUKO DUZUE, ZUEN INTERESEKOA IZAN DAITEKEEN BESTELAKO INFORMAZIOAREKIN BATERA.
 - **EUROPA**: FACT SHEET EDO INFORMAZIO-ORRIA (EGUTEGI AKADEMIKOA, IZENA EMATEKO EPEAK, KONTAKTU-INFORMAZIOA, ETAB.). WEBGUNE BATZUEK BADITUZTE, BESTE BATZUEK EZ.
 - ERASMUS STUDENT NETWORK (**ESN**). LAGUNGARRIA IZAN DAITEKE: [HEMEN](#)
 - **LATINOAMERIKA (LA)**: [HEMEN](#)
 - **BESTE NORAKOAK (BN)**: [HEMEN](#)
 - FACT SHEET GUZTIEN BILDUMA-LANA EGITEN ARI GARA ([HEMEN](#))

HASIERAKO PROZEDURA

[AZAROAN HASTEN DA]

- **GAUR SISTEMAN EGITEN DA** (ARGIBIDEA: [HEMEN](#))

8 NORAKO HAUTATZEKO AUKERA DAGO (BAINA EZ DITUZU 8AK AUKERATU BEHAR)
MUGIKORTASUN PROGRAMA EZBERDINAK NAHASTU DAITEZKE (ERASMUS+, LA, BN ...)

- **EPEAK BETE:** [HEMEN](#)

IKASTURTEZ IKASTURTE DATAK ALDATZEN JOATEN OHI DIRA, BAINA GUTXI GORABEHERA IZEN-EMATEA AZAROAREN LEHEN EDO BIGARREN ASTEAN HASTEN DA ETA 15 EGUNeko EPEA IZATEN DU.

- **BESTE DOKUMENTU BATZUK**

1. HIZKUNTZA ZIURTAGIRIAK. HELBIDE HONETARA BIDALI:

(**ERASMUS+, BERARIAZKO LA//BN**): ARTEEDERRAK.IKASLEAK-INTERNAZIONALA@EHU.ES

(**LA // BN OROKORRAK**): CERTIIDIOMAS.INTERNACIONAL@EHU.EUS

OHARRA: BI MUGIKORTASUN MOTETARA AURKEZTUZ GERO, BI HELBIDEETARA BIDALI.

2. BUDDY PROGRAMAREN ZIURTAGIRIA ETA BALORAZIOA HELBIDE HONETARA BIDALI :

ARTEEDERRAK.IKASLEAK-INTERNAZIONALA@EHU.ES

BALDINTZAK

- **LEHEN ETA BIGARREN MAILAK GUZTIZ GAINDITUAK**

IRAKASGAI BAT IZAN EZIK, GEHIENEZ

- **ATZERRIAN EGIN BEHARREKO KREDITUEN MINIMOA**

5 HILABETE = 30ECTS (ERASMUS+) 24 ECTS (LA)

9 HILABETE = 60ECTS (ERASMUS+) 48 ECTS (LA)

GARRANTZITSUA:

EZIN DIRA HIZKUNTZA-IKASTAROAK SARTU, GAINDITU GABEKO IRAKASGAIK
ETA EZTA ERE CURRICULUMETIK KANPOKO IKASTAROAK

- **HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK**

JATORRIZKO ETA NORAKO UNIBERTSITATEEK ESKATUTAKOAREKIN BETE

- **EHU-KO DERRIGORREZKOAK DIREN IRAKASGAI
GUZTIETAN MATRIKULATU ZAITEZ**



IZENDAPENAK

BEHIN HELMUGA ESLEITUTA

IZENDA- PENAK URRATSEZ URRATS

1. ERASMUS+ ETA BERARIAZKO LA//BN PLAZAK **GURE FAKULTATEAK** ESLEITZEN DITU

2. KUPO OROKORREKO LA//BN PLAZAK **NAZIOARTEKO HARREMANEN BULEGOAK (NHB/ORI-K)** ESLEITZEN DITU

3. 1GO BIRA (URTARRILAREN HASIERAN)

GAUR-EN ESLEITUTAKO PLAZAREN **ONARPENA** EGIN BEHAR DUZU, ZURE AUKERA GOGOKOENA EZ IZAN ARREN.

PLAZA EZ ONARTZEAK PROZESUTIK KANPO UZTEN ZAITU, ETA EZ ZARA 2. BIRARA IGAROKO

4. MUGIKORTASUNA **EZ EGITEA** ERABAKI BADUZU, **ESPRESKI UKO EGIN BEHAR DIOZU ESLEITUTAKO PLAZARI**

GARRANTZITSUA DA PLAZARI UKO EGITEA MUGIKORTASUNA HURRENGO IKASTURTERAKO ATZERATZEA ERABAKI BADUZU

5. 2. BIRA (OTSAILAREN HASIERAN)

LEHENTASUN HANDIAGOA EMAN DIOZUN AUKERA BAT ESLEITU DAKIZUKE

6. 2. BIRAREN OSTEAN NAHIAGO DUZUN **HELMUGA AUKERATU ETA ONARTU**

7. AUKERA EGIN OSTEAN, "BESTE AUKERETAN INTERESATUA" MARKA KENDU

8. LEHEN ZIKLOA GAINDITZEKO KONPROMISOAREN DOKUMENTUA BETE ([HEMEN](#)) ETA HURRENGO HELBIDERA BIDALI:

ARTEEDERRAK.IKASLEAK-INTERNAZIONALA@EHU.ES

9. AURRETIKO AKORDIO AKADEMIKOA PRESTATU ([HEMEN](#))

- MARTXOTIK AURRERA, BEHIN GURE IZENDAPEN EMAILA JASO DUZULA, **ATZERRIKO FAKULTATEAREN JARRAIBIDEAK** **ITXARON** BEHARKO DITUZU. ORDURA ARTE EZIN DUZU EZER EGIN.
- ATZERRIKO FAKULTATEAREN JARRAIBIDEAK ATZERATU DAITEZKE, BAINA EZ BADIRA APIRILERAKO ZUREKIN HARREMANETAN JARRI, IDATZI IEZAIOTZU.
- ATZERRIKO UNIBERTSITATEAN **IZENA EMATEA EDO ERREGISTROA** EGITEA **ZURE ERANTZUKIZUNA** DA. INSKRIPZIOA EZ EGITEAK EDO ESKATZEN ZAIZUN DOKUMENTAZIOA AURREIKUSITAKO EPEEN BARRUAN EZ BIDALTZEAK MUGIKORTASUNAREN DEUSEZTAPENA SUPOSA DEZAKE.

APPLICATION FORM INSKRIPZIOA EDO ERREGISTROA

1. EGIZU IZEN-EMATEA /ERREGISTROA ATZERRIKO UNIBERTSITATEAK EZARRITAKO EPEAN.

(EUROPAN **APPLICATION FORM** DU IZENA, LATINOAMERIKAN **POSTULACIÓN**)

2. ATZERRIKO UNIBERTSITATEETAN IZEN-EMATEA /ERREGISTROA EGITERAKOAN, BESTELAKO DOKUMENTAZIOA ESKA DEZAKETE. BIDALI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA EZBERDINA IZAN DAITEKE, BAINA AGIRI HAUEK OHIKOENAK IZATEN DIRA :

- **BEHIN-BEHINEKO AKORDIO AKADEMIKOA** (LEARNING AGREEMENT)
NORAKO UNIBERTSITATEAK SINATZERAKOAN BEHIN BETIKO AKORDIOA BIHURTUKO DA
- **IKASKETA-ESPEDIENTEA/TRANSCRIPT OF RECORDS**
POSTA ELEKTRONIKOZ KOPIA BAT BIDALIKO ZAIZUE
- **NAN EDO PASAPORTEAREN KOPIA**
MUGIKORTASUNAREN DENBORALDI OSORAKO INDARREAN EGON BEHAR DU
- **ISTRIPU ETA ABERRIRATZE ASEGURUA MUGIKORTASUNAREN DENBORALDI OSORAKO**
EHU-IBILI ASEGURUA (AUKERA ONA): [HTTPS://WWW.EHU.EUS/ES/WEB/KONTRATAZIOA/IBILI-EHU](https://www.ehu.eus/es/web/kontratazioa/ibili-ehu)
- **DOSSIERRA/PORTFOLIOA**
GEROZ ETA UNIBERTSITATE GEHIAGOTAN ESKATZEN DUTE
- **MUGIKORTASUN-PLAZAREN IKASLE-ZIURTAGIRIA** LORTZEKO PAUSOAK :
GAUR > UNIBERTSITATE-TRUKEA > KONTSULTAK > EGINDAKO ESKAERAK > ZIURTAGIRIAK

ZER DA AKORDIO AKADEMIKO LEARNING AGREEMENT

- NORAKO UNIBERTSITATEAN EGINGO DITUZUN IRAKASGAIK ETA EHUKO IRAKASGAIK JASOTZEN DITUEN AKORDIOA DA. NORAKO UNIBERTSITATEAN IRAKASGAI HAUEK GAINDITZERAKOAN, EHUKO IRAKASGAIEKIN BALIOZTATUKO DIRA.
- GURE FAKULTATEAN DAGOZKIZUN **DERRIGORREZKO IRAKASGAI GUZTIAK** SARTU BEHAR DITUZU. GERO, NORAKO UNIBERTSITATEAN ANTZEKO IRAKASGAIK BILATU BEHARKO DITUZU.
- IRAKASGAIEN AUKERAKETAK IKASTEN ARI ZAREN GRADUARI ERANTZUN BEHAR DIO.
- NORAKO UNIBERTSITATEAN GAZTELANIAZ ERAKUSTEN EZ BADUTE, IRAKASGAIK INGELESEZ AURKEZTU BEHARKO DITUZU.
- AKORDIOAK BI FASE DITU:

LEHENENGO FASEA.

AURRETIKO AKORDIOAREN INPRIMAKIA BETETZEN DA. [HEMENDIK JEITSI DEZAKEZU](#)

ZURE + HEMENGO MUGIKORTASUN KOORDINATZAILEAREN SINADURAREKIN

BIGARREN FASEA. ALDAKETARIK EGIN GABE, AKORDIOA DAGOKIZUN PLATAFORMARA IGO:

> **ERASMUS+**: EWP (ERASMUS WITHOUT PAPERS). ARGIBIDEA: [HEMEN](#)

EWP PLATAFORMAN AKORDIOA OSATZEN DUZUNEAN, GURI POSTAZ ABISATU SINATU AHAL IZATEKO ETA NORAKO KOORDINATZAILEARI SINATZEKO ESKATZEN DIOZU.

> **LA//BN**: GAUR. ARGIBIDEA: [HEMEN](#)

GAUR-EN AKORDIOA OSATZEN DUZUNEAN, GURI POSTAZ ABISATU > DAGOKIZUN EHUKO KOORDINATZAILEAK GAUR BALIOZTATUKO DIZU > PDF. A GAURRETIK DESKARGATU > SINATU > ZURE KOORDINATZAILEARI BIDALI SINATU DEZAN > NORAKO KOORDINATZAILEARI SINADURA ESKATU

NOLA BETE AURRETIKO AKORDIO AKADEMIKOA

COMPROMISO PREVIO DE RECONOCIMIENTO ACADÉMICO

PROGRAMA DE MOVILIDAD: _____ CUATRIMESTRE: 1º ____ 2º ____

CURSO ACADÉMICO: _____

CENTRO UPV/EHU: _____

CURSO: 2º ☐ 3º ☐ 4º ☐ 5º ☐ 6º ☐ proyecto ☐ posgrado (master/título
propio) ☐ doctorado ☐ I

UNIVERSIDAD DE DESTINO: _____

PAÍS: _____

Nombre del/de la estudiante:

DNI:

DETALLE DE LAS ASIGNATURAS A CURSAR EN LA UNIVERSIDAD DE DESTINO Y LAS ASIGNATURAS DE LA UPV/EHU A RECONOCER

Asignaturas a cursar en univ. extranjera			Asignaturas de la UPV/EHU a reconocer			
Cod.	Denominación asignatura	Cred.	Cod.	Denominación asignatura	Cred.	Curso
			26882	LABORATEGIA	6	3



ADIBIDEZ: GURE WEB ORRIALDEAN ...

Grado en Arte

Matrícula

Plan de estudio

Créditos y asignaturas

Menciones e itinerarios

Competencias adquiridas

Trabajo Fin de Grado

Profesorado

Movilidad

Prácticas

Calendario y exámenes

[EHU](#) > [Estudiar](#) > [Grados](#) > [Oferta](#) > [Plan de estudio](#) > Créditos y asignaturas

Laboratorio A

CENTRO Facultad de Bellas Artes

TITULACIÓN Grado en Arte

CURSO ACADÉMICO 2025/26

CURSO 3

Nº CRÉDITOS 6

IDIOMAS Castellano

Euskera Inglés

CÓDIGO 26882



**PLAZA BATEN
ESLEIPENAK**

EZ DU

**MUGIKORTASUNA
ZIURTATZEN**

**HIRUGARREN SINADURA
LORTU ARTE, NORAKO
UNIBERTSITATEAK ATZERA
BOTA DEZAKE
ZURE ESKAERA**

**HEGALDI ZEIN EGONALDI
ERRESERBAK EZ EGIN
NORAKO
UNIBERTSITATEAREN
BEHIN-BETIKO
BAIEZTAPENA IZAN ARTE**



BIRPASATU

JOAN AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- LEHEN ZIKLOA GAINDITUKO DUZULAREN KONPROMISO-DOKUMENTUA
- NORAKO FAKULTATEAN ONARTUA IZAN ZARELAREN BAIEZTAPENA
- AURRETIKO KONPROMISOA 2 SINADURAREKIN (ZUREA ETA HEMENGO KOORDINATZAILEARENA)
- NORAKO UNIBERTSITATEKO SISTEMAN ALTA EMAN ETA ESKATZEN DIZUTEN GUZTIA BIDALI (APPLICATION FORM/ POSTULACIÓN)
- LEARNING AGREEMENT/IKASKETEN AKORDIOA 3 SINADUREKIN (ZUREA + HEMENGO ETA ATZERRIKO KOORDINATZAILEENA)

EWP (**ERASMUS+**): IRAKASGAIK GRABATU ETA SINATU EWP SISTEMATIK EGITEN DIRA

GAUR (**LA/BN**): IRAKASGAIK GRABATU > PDF. A DESKARGATU > PDF. A SINATU

- ISTRIPUEN AURKAKO/ABERRIRATZE MUGAGABEKO ASEGURUA (IBILI ASEGURUA EDO NAHI DUZUN BAT). POLIZA + ORDAINAGIRIA EMAILEZ GURE BULEGORA BIDALI.
- ERASMUS+: EUROPAKO OSASUN-TXARTELA ERE BAI ([HEMEN](#)). EGIAZTAGIRIA BIDALI IEZAGUZU.
- LATINOAMERIKARAKO BISA ([HEMEN](#)) ETA BESTE NORAKOAK ([HEMEN](#))

EHUKO FAKULTATEKO MATRIKULA

- UZTAILEAN EGIN MATRIKULA, HEMEN IKASIKO BAZENU BEZALA
- GOGORATU MAILA OSOKO DERRIGORREZKO ETA AUKERAKO IRAKASGAIETAN MATRIKULATZEA, MUGIKORTASUNAREN LUZAPENA KONTUAN HARTU GABE
- ZIURTATU ZAITEZ MATRIKULATUTAKO IRAKASGAIK BAT DATOZELA AKORDIO AKADEMIKOAN JASOTAKOEEKIN EDO, MATRIKULA EGITERAKOAN, GAUR-EK EZ DIZU UTZIKO AURRERA EGITEN

BEKAK ETA DIRU- LAGUNTZAK

EZ DITUGU GUK
ERAMATEN

INFORMAZIO OSOA [HEMEN](#)

BEKEN ORDAINKETAREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZEIN ZALANTZARAKO:

POSTA ELECTRONIKOA: NAZIOARTEKOAK.ORDAINKETAK@EHU.EUS

TELEFONOA: 946015060 / 946012962.

NORAKO UNIBERTSITATEAN ERRENDIMENDU AKADEMIKO ONA EGIAZTATU BEHARKO DA. EGONALDIAN MATRIKULATUTAKO KREDITUETATIK GUTXIENEZ %50 GAINDITU BEHARKO DA. PORTZENTAI HORI GAINDITZEN EZ BADA, JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA BUELTATZEA ESKATUKO DIZUTE.



NORAKO UNIBERTSITATERA BEHIN HELDUTA: EGIN BEHARREKOAK

BIRPASATU

BEHIN HAN EGONDA
AURKEZTU
BEHARREKO
AGIRIAK

EGONALDIAREN HASIERAREN ZIURTAGIRIA / CERTIFICATE OF ARRIVAL

- NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO BULEGORA (**NHB/ORI**) BIDALI BEHAR DUZU, NORAKO UNIBERTSITATEAREN SINADURAREKIN ETA ZIGILOAREKIN: MOVILIDAD.INTERNACIONAL@EHU.EUS
- EPEA: **HILABETE BAT** EGONALDIA HASTEN DENETIK. ZIURTAGIRIA EZ BIDALTZEAK MUGIKORTASUNA **BALIOGABETZEA** DAKAR. HORREKIN, GAINDITUTAKO IRAKASGAIK ETA MUGIKORTASUN-BEKA BERTAN BEHERA UZTEA ERE.
- NORAKO FAKULTATEAK EZ BADIZU ZIURTAGIRIA EMATEN, ZURE GAUR-ETIK EDO [HEMENDIK](#) DESKARGATU DEZAKEZU.

AKORDIO AKADEMIKOAREN ALDAKETA (LEARNING AGREEMENT)

- EDOZEIN ALDAKETA EGITEKO, BEHARREZKOA DA GURE BULEGOKO KOORDINATZAILEAREN ALDEZ AURREKO BAIMENA.
- GUREKIN HARREMANETAN JARRI GAUR/EWP GAITU ETA BERTAN ALDAKETAK EGIN AHAL IZATEKO.
- HIRU SINADURAK BEHARKO DITUZU BERRIZ ERE.
- EPEA: **HILABETE BAT** ATZERRIKO UNIBERTSITATEAN KLASEAK HASTEN DITUZUNETIK.
- DATA HAUETATIK AURRERA EZ DIRA ALDAKETA-ESKAERARIK ONARTUKO:

AZAROAK 15 (1º LAUHILABETEA) EDO **MARTXOAK 30** (2º LAUHILABETEA)

LUZAPENA (EZ DA BETI POSIBLE IZATEN), MURRIZKETA, DEUSEZTAPENA

- GURE BULEGOKO KOORDINATZAILEAREKIN HARREMANETAN JARRI



ETXERA BUELTAN

ZER AURKEZTU BEHAR DUZU AURRETIK

EGONALDI- AREN AMAIERA

AURKEZTU
BEHARREKO
AGIRIAK

EGONALDIAREN AMAIERAREN ZIURTAGIRIA/CERTIFICATE OF ATTENDANCE

- NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO BULEGORA (**NHB/ORI**) BIDALI BEHAR DUZU, NORAKO UNIBERTSITATEAREN SINADURAREKIN ETA ZIGILOAREKIN: MOVILIDAD.INTERNACIONAL@EHU.EUS
- NORAKO FAKULTATEAK EZ BADIZU ZIURTAGIRIA EMATEN, ZURE GAUR-ETIK EDO [HEMENDIK](#) DESKARGATU DEZAKEZU.

ERASMUS IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA

- **EU-CORPORATE-NOTIFICATION-SYSTEM@EC.EUROPA.EU** TIK EMAIL BAT JASOKO DUZU
- ADI EGON (SPAM KARPETA BEGIRATU)
- EMAILEAN TXOSTENERA SARTZEKO ESTEKA AGERTUKO ZAIZU, BERTAN INKESTA BAT BETETZEKO ESKATZEN
- BETE EZEAN, EZINGO ZAIZU KALIFIKATU

TRANSCRIPT OF RECORDS OFICIAL (TOR)

- GURE BULEGORA BIDALI: ESTUDIANTES-INTERNACIONAL.BELLASARTES@EHU.ES
- PANTAILA-ARGAZKIRIK EZ DUTE BALIO, EZTA ERE NORAKO UNIBERTSITATEAREN ZIGILURIK EZ DUTEN AGIRI OFIZIALEK. NORAKO UNIBERTSITATEAREKIN HARREMANETAN JARRI EZ BADIZUTE AGIRIA BIDALTZEN.

ESPERO DUGU GIDA HAU LAGUNGARRIA IZATEA

MUGIKORTASUN ETA NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO PROGRAMEN
DEKANORDETZA

